

Ebola eguneroko pentsamenduan barneratzen: gizarte-irudikapena, arrisku- hautematea eta emozioak

Nahia Idoiaga Mondragon

EHUko ikertzailea Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailean,
Psikologia Fakultatea (UPV/EHU)

Gizartea mehatxatzen duten fenomeno berriak, adibidez 2014ko ebola-izurritea, ulertzeko beraiei buruzko esanahi partekatuak eraikitzen ditugu, gizarte-irudikapenak. Horien bidez ebolarí esanahia emateaz gain arriskuaren hautemate-maila eta emozioak ere bideratzen dira. Lan honek Euskal Herriko 294 pertsonak ebola nola ulertzen, hautematen eta sentitzen duten neurtu du 2014ko abuztu eta azaro artean, hau da, osasun-krisiaren momentu gordinenean. Emaitzek adierazi dute ebola Afrikarekin lotutako gaixotasun arriskutsu gisa irudikatzen dela, baina gure gizartean izurritearekiko norberaren arrisku-hautematea eta beldurra ez direla oso altuak. Are gehiago, arrisku-hautemate eta beldurra altuagoak dira krisiaren hasieran Mendebaldean kutsatzeak gertatzean baino. Hori, izurriteak behin eta berriz agertzeak sortutako nekeak edota izurriteekiko betetzen ez diren aurreikuspen izugarriek azal lezakete, baina nabarmena da osasun-krisiei aurre egiteko eran eragin zuzena duela.

GAKO-HITZAK: Ebola · Gizarte-irudikapen · Arrisku-hautemate · Emozio.

Integrating ebola in the everyday thinking: Social representations, risk perception and emotions

To understand the new phenomena that threaten our society, such as the current ebola outbreak, we build shared meanings, that is, social representations. Social representations make the ebola be understandable and also channeled the risk perception and emotions. This work analyzed how 294 people from the Basque Country understood, perceived and felt for ebola from August to November 2014. The results showed that ebola is represented as a dangerous disease linked to Africa, but in our society creates mild risk perception and fear. Even more, the risk perception and fear emotions were higher when the health crisis started than when contagions happened in the West. This could be explained by the fatigue created by the incessant reappearance of epidemics or because the tragic predictions of epidemics almost never become real. What is clear is that these factors directly influence the way to face emerging infectious diseases.

KEY WORDS: Ebola · Social Representation · Risk perception · Emotion

Jasotze data: 2015-06-19 *Onartze data:* 2015-11-13

1. Sarrera

Mundu-mailako osasun-izurriteak azken hamarkadetan behin eta berriz pil-pilean izan ditugun gaiak dira. Gizartea bereziki izutzen da beraien zabalkunde geroz eta azkarragoagatik, baita sortzen duten mehatxu fisiko zein sinbolikoagatik ere. 2014. urtean inoizko ebola-izurrite handiena sortu zen Afrika mendebaldean eta haren oihartzuna ikaragarria izan zen mundu-mailan. Izan ere, izurrite horren kutsakortasun- eta hilkortasun-mailak alertan jarri zituen mundu osoko herrialdeak. Baina, nola ulertu eta irudikatu dugu izurrite hori Mendebaldeko biztanleok? Nolako arrisku-hautematea sortu du ebolak? Edota zein sentimendu edo emozio sortu ditu biztanlerian? Esku artean dugun lan honek ikerketa-galdera horiei erantzungo die, gizarte-irudikapenen teoria oinarritzat hartuaz.

1.1. 2014ko ebola-izurritea

2014. urtean sortu zen ebola-izurritea inoizko zabalduena da. Lehenengo kasua 2013ko abenduan agertu zen Ginean eta ordutik aurrera gaixotasuna Liberia, Sierra Leona, Nigeria, Senegal eta Malira zabaldu zen. Horrez gain, AEBn eta Espainian, osasun-langileak kutsatu ziren gaixorik aberriratutako pazienteak zaintzen ari zirela. 2014ko abenduaren 23 arte Osasunaren Mundu Erakundeak 19.648 kasu susmagarri eta 7.645 hildako zenbatu zituen, nahiz eta OMEk berak onartu behar izan zuen kasu errealak askoz gehiago zirela baina ez zuela guztiz kuantifikatzeko baliabiderik.

1.2. Nola ulertzen edo irudikatzen dugu ebola?

Gizarte-irudikapenen teoriak (GIT) deskribatzen du nola ulertzen dituen jendeak fenomeno berriak bere eguneroko bizitzan (Moscovici, 1984). Beste era batean esanda, gizarte-irudikapenak pertsonen ezagutzen duten mundua antolatzeke eta ulertzeko erabiltzen dituzten uste-, esanahi-, jarrera- eta irudi-sistemak dira. 90eko hamarkadaren erdialdetik hona behin eta berriz azaldu izan diren osasun-izurriteak, besteak beste, Ebola birusaren gaixotasuna, SARS, HIES, kolera, hegazti-gripe, txerri-gripe edota MRSA-ak orain arte pentsaezina zen zabalkuntza-gaitasuna izan dute. Horren ondorioz, mundu osoko pertsonen beraiei buruzko ideia edo irudikapen partekatuak eraiki dituzte, beraietaz dagoen jakintza zientifiko espezifikotik haratago.

Aipaturiko oinarri teorikoa sustatuz, Joffe-k aztertu zuen (2002) nola ulertu zuten Britainia Handiko prentsak eta biztanleriak 1995eko Zaireko (orain Kongoko Errepublika Demokratikoa) ebola-izurritea. Ikertzaile horren ondorio nagusia, bai hedabideetan baita biztanleengan ere, ebolaren irudi komun bat zegoela izan zen: ebola afrikartzat hartzen zen, Afrikako ohiturekin lotua eta britainiarrekin zerikusirik gutxi zuen gaixotasun gisa irudikatzen zen. Gainera, ikerketa horren aburuz, britainiarrek ez zuten uste ebola beste gaixotasun ezagunagoak baino okerragoa zenik. Are gehiago, britaniar askok zientzia fikzioarekin lotu zuten gaixotasuna, horrela beren burua mehatxutik aldentuz. Gainera, Mendebaldeko gizartea, bere osasun-sistema dela medio, ebolarekiko iragazgaitz zela uste zuten. Azkenik, gaixotasuna Afrikatik zabaltzea hein handi batean bertako ezaugarri estruktural eta

ohiturek bultzatzen zutela uste zuten. Halere, aipatu beharra dago ikerketa hori ez zela «krisi-momentuan» bertan burutu, baizik eta zenbait urte geroago, horregatik erantzunek euste-maila bat izan zezaketen (Joffe, 2011).

Gaixotasun kutsakorren zabalkundeaz erruduntzat jotzeko «beste» talde bat bilatzea, ebola eta afrikarrekin gertatu zen bezala, mundu osoan zehar burututako ikerketetan errepikatu den patroia izan da. Bai «beste» talde horri jokaera zikin edota moraltasun gutxikoak burutzea egotzita (Joffe eta Staerklé, 2007) bai eta zuzenean gaixotasuna nahita eta gaiztakeriaz zabaltzea leporatuta ere (Joffe, 1999). Horrela izan zen Zambiako nerabeen artean HIESari buruz egindako ikerketan (Joffe eta Bettega, 2003), non gaixotasuna Mendebaldearekin lotu zen. Baita SARSaren kasuan britainiar prentsan ere (Washer, 2004), non biztanle txinatarrak erruduntzat jotzen ziren. Edota Hong Kong-en hegazti-gripearekin (Joffe eta Lee, 2004), non oilaskoak hazten eta saltzen zituzten txinatar kontinentalei higiena falta leporatzen zitzairen. Horrenbestez, gaixotasunaren sinbologian «besteak» biktima zein erruduntzat jotzeak *self*-ari mehatxuaren aurrean babesa eskaintzen dio norberaren ardura eta herstura-maila gutxituaz (Joffe, 2011).

Idea horrekin jarraituaz, Washer-ek (2006) dio gaixotasunetik babestuta gaudela sinesten dugula maiz, gure bizitzeko era «besteen» bizitzeko eratik (atzeritarrak, homosexualak, drogazaleak, herrialde txiroetakoak, etab.) oso desberdina dela hautemanaz. Horregatik, jendeak uste du «besteak» nolabait arrisku-egoeran edo gaixotasun berri hauen errudun direla, beraien jarduerak (jaten duten janariak, bizi diren leku zikinek, animaliekin duten harremanak edo dituzten ohitura arraroek) bultzatuta. Arazo nagusia gaixotasuna «gu» bezalako pertsoneri ere eragiten hasten denean gertatzen da, orduan «besteei» gu kutsatzea leporatzen diegu beren jarrera arduragabeagatik. Halere, gaur egungo gizarte postmodernoetan zaila da maiz erruduntzat jotzeko kanpoko «beste» talde bat bilatzea, kasu horietan gobernu zein agintariak edo sektore industrial ezberdinetako buruzagiak erruduntzat jo izan dira gaixotasunaren sorreraren aurrean egoera ondo ez kudeatzeagatik. Edota are okerrago, zabalkundea bultzatzea ere leporatu izan zaie ustelkeria eta arazoaren ezkutatzea direla medio.

Ikuspuntu oso antzeko batekin, eta izurriteak inguratzen dituzten aktore kolektiboen ideian oinarrituta, Wagner-Egge eta kolaboratzaileek (2011) 2009ko txerri-gripearen izurritea aztertu zuten eta gizartean heroi, biktima eta bilauen irudikapenak bilatu. Haien ikerlanaren aburuz, krisi horretako heroiak ikertzaileak (zientzialari, mediku, etab.) izan ziren, sinesgarritasuna esleitzen zitzaielarik. Osasun-agintari zein gobernuak balorazio positiboa izan zuten hasieran, baina gero antzutzat jo ziren. Izurrite horretako bilauak alde batetik komunikabideak izan ziren, beldurraren erabilera interesatua egitea eta goi-mailako botereen txotxongilo hutsak izatea leporatuta. Eta bestalde, industria farmazeutikoarekin lotutako enpresa pribatuek ere bilau-papera jokatu zuten, gaixotasunaz baliatuta dirua irabazteaz erruduntzat joaz. Azkenik, gripearen biktima gisa herrialde pobre eta azpigaratuak hauteman ziren, nahiz eta biktima horiek ez ziren guztiz errugabetzat jo, higiena eta diziplina faltaz akusatatuak izan baitziren. Horrenbestez, kolektibo ezberdinei esleitutako ezaugarriek irudikapen sinboliko bat eraikitzen lagunduko dute, gizarteari

izurriteen inguruan sortutako gatazka eta ulertezintasunak kudeatzea eta ulertzea lagunduaz (Wagner *et al.*, 2002).

1.3. Nolako arrisku-hautematea sortzen du ebolak?

«Arrisku-gizarte»an Ulrich Beck (1992) soziologo alemaniarrek dio gizarte postmodernoetan ditugun arrisku motak orain arte bizitakoen aldean ezberdinak direla. Lehenaldian pertsonak mehatxatzen zituzten arriskuekin erkatuta, gaur egungo arriskuek ez dute muga potentzialik, ez maila geografikoan (eta ondorioz globalizatuak dira) ezta denbora-mailan ere (orain gertatuak ondorengo belaunaldietan eragin baitezake). Osasun-izurrite berriak, eta batzuetan beraien mehatxu soilak, «arrisku-gizarte» horren adibide argiak izan dira, arreta publikoa masiboki bereganatzen baitute, mundu-mailako arrisku-diskurtsoak areagotuaz (Washer, 2010). Gainera, arrisku diskurtso horren barnean komunikabideek izurritea plazaratzeko duten erak eragina du pertsonak duten arriskuaren pertzepzioan eta hari erantzuteko jokabidean (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2015).

Historikoki arrisku-hautematea azaltzeko teoria erabilienetariko bat Paradigma Psikometrikoa izan da, zeinaren ustetan arriskua osoki subjektiboa den. Planteamendu horrentzat, arriskua ez da existitzen gure ideia edo kulturetatik kanpo, eta prozesu indibidual eta kognitiboa da (Slovic, 2010). Nahiz eta teoria hori osasun-izurriteetarako ere erabilia izan den (Aragonés, Tayalero eta Olivos, 2010), kritika asko jaso ditu. Besteak beste, konstruktua sakontasuna sakrifikatzea eta inguratzen dituen prozesu afektiboei jaramon gutxi egitea leporatu izan zaio (Slovic, 2010), arrisku-hautematea bera emozio bezala ez ulertuz.

Gainera, arrisku-hautematea norbanako bakoitzaren ebaluazio subjektibo gisa ulertzetik haratago prozesu kolektibo bezala ere ulertu beharra dago. Puntu honetan GITak arrisku-hautematearen teoria klasikoak kritikatzeko ditu, zeren eta horietan pertsonen hautemate-erakuntza faktoreei egozten zaie arriskua. Horren ordez GITak planteatzen du pertsonak partekatzen dituzten ideia komunetan oinarrituz aztertu beharko litzatekeela arriskua, horrela arriskuari berari ematen zaion esanahia ulertzeko. Hau da, prozesu kognitibo intrapertsonalaz eta haren mugez arduratu beharrean, GITak arrisku bakoitzarekiko pentsamendu partekatuaren eduki espezifiko eta konplexua aztertu nahi du.

1.4. Zein sentimendu edo emozio sortzen ditu ebolak biztanlerian?

GITaren ustetan emozioek ez dute kognizioa distorsionatzen, biak baitira arriskuaren erantzunaren alde anizkoitzak (Höijer, 2011; Joffe, 2003). Horregatik, bai teoria horretatik bai eta beste zenbait ikuspuntutatik (DeSteno, Petty, Wegener eta Rucker, 2000; Johnson eta Tversky, 1983, Waters, 2008; O'Neil eta Humle 2009) ere, emozioak eta hautematea lotzen dituen kateak gizakion osasunerako berebiziko garrantzia duela defendatu izan da eta arrisku-egoeren aurrean norbere jokaera moldatzeko ezinbestekoa dela. Gainera, arrisku-hautematea altua denean, bai pertsonen erantzun emozionala bai haien sumindura altuak direla frogatu da (Millstein, 2003).

Gizarte-irudikapenen arloko ikerketek nabarmentzen dutenez (Smith eta Joffe, 2012), emozioek garrantzia dute pentsamendu sinbolikoan, gaia ezagun eta ulergarri bihurtuaz. Gainera, osasun-izurritei buruzko albisteek biztanlerian izandako eragina aztertu duten ikerketek frogatu dute arriskuaren eraikuntza parte batean pertsonen epidemiaren aurrean duten beldurrezko erantzun emozionalak azaltzen duela (Idoiaga, Gil De Montes eta Valencia, 2014). Bukatzeko, azpimarratu beharra dugu, osasun-izurrite baten aurrean badaudela alerta- edo zelata-funtzioak bete ditzaketen emozioak, beldur edo haserretik sortuak, baina baita kontrara konponbide bila edo ekintzara bultzatuko gaituzten emozioak ere (Higgins, 1998).

2. Helburu eta hipotesiak

Lan honen helburu nagusia da aztertzea zer eragin izan duen 2014ko udaberritik Afrika mendebaldean piztuta dagoen ebola-izurriteak Euskal Herriko biztanleen gizarte-irudikapenetan. Era berean, ebolak pertsona horien arrisku-hautematean eta emozioetan izandako eragina ere aztertuko dugu.

Ikerketa honetako analisiek ikertu dute euskal herritarrek ebola-izurrite hau nola ulertzen, hautematen eta sentitzen duten mundu-mailako «krisi-momentu» batean. Izan ere, analisiak EAEn egin ziren Espainian Europa mailako lehen kutsatzea gertatu baino lehen (2014ko abuztua) eta ondoren (2014ko azaroa).

Lehenik eta behin, aurreko ikerketetan gertatu zen bezala (Joffe eta Haarhoff, 2002), pertsonen kolektiboki ebola afrikar bezala, afrikar ohiturei lotua eta afrikar biktimak eragiten dituen izurrite gisa irudikatzea espero dugu. Baina izurritearen tamaina eta arrisku-gizartearen hautematea (Beck, 1992) direla medio, pertsonen irudikapen partekatuek mundu-mailako zabalkundeari eta kutsatzeari beldurra azaltzea ere iguriki dugu.

Gainera, ebolaren gizarte-irudikapeneko pertsonaiei dagokienez, aurreko ikerketetan bezala (Wagner-Egge, 2011) izurrite honetako bilauak alde batetik industria farmazeutikoa eta komunikabideak izatea espero dugu, baina Mendebaldean kutsatzeak gertatu ahala baita Mendebaldeko herrietako gobernuak ere (Washer, 2006). Bigarrenik, ebolak sortutako arrisku-hautemateari dagokionez, mundu-mailako arrisku gisa hautematea espero da, arrisku-gizartearen barnean (Beck, 1992). Halere, norberarentzako arrisku-hautematea arrisku-hautemate orokorra baino txikiagoa izatea espero da, hau da, norbera babestuago hautematea orokorrean gizartea baino, Mendebaldeko gizartean bizitzeak sorraraziko babes-hautematea dela medio.

Gainera, ebolarekiko arrisku-hautematea pertsonen harekiko duten erantzun emozionalarekin lotuta egotea ere espero da. Espresuki, ebolak beldur-emozioak sortzea espero da, baina baita haratago joan eta beste emozio-esparru batzuetan eragitea ere. Azkenik, ebolaren momentu kritikoa barnean, hilabeteen igarotzea eta Europako lehen kutsatzea inflexio-puntu izatea espero dugu. Horrenbestez, arrisku-hautematean eta emozioetan desberdintasunak egongo dira 2014ko abuztu eta azaro artean.

3. Metodoa

3.1. Lagina

Ikerketan Euskal Autonomia Erkidegoko 294 pertsonak hartu zuten parte (% 76.2 emakumea, $M_{adina} = 32.38$ urte, $DT=15.75$). Subjektu bakoitzari ebola-izurriteari buruzko galdesorta bat betetzeko eskatu zitzaion. Datuak jasotzeko datagatik bereizita, abuztuko laginean 145 pertsona zeuden (% 71.7 emakumea, $M_{adina} = 31.79$ urte, $DT=13.74$) eta azaroko laginean 149 pertsona (% 80 emakumea, $M_{adina}=32.95$ urte (Heina 17-76 urte), $DT=17.52$).

3.2. Prozedura

Lehenik eta behin, ebola nola ulertzen den eta haren inguruko irudikapen partekatuak zeintzuk diren aztertzeke asoziazio askea erabili dugu. Gizarte-irudikapenen teoriaren arabera, talde arteko (Pereira de Sa, 1996) edo testuinguru konkretu bati buruzko (Wagner, 1997) asoziazio askea lanabes aproposa da talde sozialak objektu zehatz bati buruz duen irudikapena aztertzeke. Ariketa hori egiteko parte-hartzaileei ondorengo galdera plazaratu zitzaion, erantzuteko nahi beste tarte utziaz: «Zer datorkizu burura ebola hitza entzutean?».

Asoziazio askeko ariketan lortutako erantzunak aztertzeke analisi lexikalerako Alceste softwarea erabili genuen (Reinert, 1983, 1990), horrela testu-analisietan ohikoak diren fidagarritasun- eta baliozkotasun-arazoak ekidinaz (Bauer eta Gaskell, 1999; Klein eta Likata, 2003, Reinert, 1996). Software horren helburu nagusia da testu bat kuantifikatu eta haren estruktura garrantzitsuenak ateratzea, testu-datueteke informazio oinarritzkoena aprobetxatuaz. Estruktura horiek hitzek testuan duten banaketarekin zuzenki lotuta daudela frogatu da (Reinert, 1996), banaketa hori ia inoiz zorizkoa ez delarik. Deskribatzea, sailkatzea, asimilatzea edota testu bat automatikoki sintetizatzea dira Alcesteren interes nagusiak. Gainera frogatua dago asoziazio askea eta analisi lexikala uztartzea gizarte-irudikapenak aztertzeke bidezkoa era badela (Lahlou, 1996), lortutako emaitzak bat baitatoz alor honetako ikerketa klasikoekin.

Bigarrenik, ebolak sortutako arrisku-hautematea neurtzeke ondorengo likert eskalako galderak aurkeztu genizkien parte-hartzaileei: «Zein mailatan uste duzu ebola arriskutsua dela orokorrean?» (1 = Arrisku baxua, 5 = Arrisku altua) eta «Zein mailatan uste duzu ebola arriskutsua dela zuretzako?» (1 = Arrisku baxua, 5 = Arrisku altua).

Hirugarrenik, ebolak sortutako erantzun emozionala aztertzeke, emozio positibo zein negatibo sorta zabala (Watson, 1988) aztertu zen. Horretarako ondorengo galdera egin zen: «Baloratu, zein mailatan sentitu dituzun ondorengo emozioak egungo ebola-izurritearen ondorioz momentu honetan edo azken astean: interesa, tentsioa, disgustua, energia, erruduntasuna, izualdia, haserrea, gogo handia, harrotasuna, ekintzarako gogo, sumindura, lotsa, inspirazioa, urduritasuna, erabakitasuna, arreta, larritasuna, aktibotasuna, beldurra». Emaitzak 5 puntuko eskala batean neurtu ziren (1 = oso gutxi edo bat ere ez; 5 = izugarri). Gero


aztertutako emozioak ondorengo eran taldekatu genituen : 1 taldea «Interesa»: arreta eta interesa ($\alpha_{\text{cronbach}} = 0.80$); 2 taldea «Beldurra»: tentsioa, disgustua, izualdia, urduritasuna, larritasuna eta beldurra ($\alpha_{\text{cronbach}} = 0.93$); 3 taldea «Haserrea»: haserrea, sumindura, erruduntasuna, lotsa ($\alpha_{\text{cronbach}} = 0.81$) eta 4 taldea «Ekintza»: energia, ekintzarako gogoia, erabakitasuna eta aktibotasuna ($\alpha_{\text{cronbach}} = 0.86$).

4. Emaitzak

4.1 Nola ulertzen edo irudikatzen dugu ebola?

4.1.1. Eduki-analisisa

Asoziazio askearen bidez lortutako emaitzak Alceste softwarearen bidez aztertu ziren. Corpus osoan 17.572 hitz egon ziren, zeintzuetatik 2.433 hitz ezberdinak ziren. Konkretuki, analisi hierarkiko beherakorrak corpora 622 hitz multzotan banatu zuen, 6 klase edo ideia nagusi eratorriaz. Lehenengo klaseak «Ebolaren zabalkundeari beldurra» % 28,25eko pisua izan zuen, bigarrenak «Farmazeutiken interesak eta beldurraren zabalkundearekin erlazioa» % 18,18, hirugarren klaseak «Ebolaren kutsatzea eta arriskua» % 14,61, laugarren klaseak «Ebola Afrikan» % 16,23, bosgarren klaseak «Teresa Romeroren kasua eta gobernuaren eta komunikabideen kudeaketa txarra» % 11,69 eta seigarren klaseak «Ebolaren etiologia» % 11,04. Klaseek ondorengo banaketa izan zuten beraz:



1. irudia. *Cluster* banaketa. Sailkapen hierarkiko beherakorra (norberak egina).

Klaseen ideia nagusiak definitzeko Alcestek klase bakoitzari esleitutako hitz multzoak azpitaldetan banatu ziren, 5 baino maiztasun handiagoa zuten hitzak soilik erabiliaz (hitz bakoitzaren maiztasuna parentesi artean ageri da).

1. klasea: «Ebolaren zabalkundeari beldurra»

- Ebolaren munduko hedapena: pertsona (33), herrialde (28), jendea iristea (25), mundu (23), Espainia (18), Europa (18), global (14), handia (11), hedatzea (11), beste (10), zuri (9), mendebalde (8), AEB (6), Amerika (5), biztanlea (5), europarra (5).
- Afrikarrak: afrikarrak (16), beltzak (5).
- Larrialdia: gaixotasun (142), kasu (23), garrantzia (20), eragin (11), neurria (5).

- Gaixotasunaren aurreko beldurra: beldurra (47), heriotza (47), arazo (11), izua (9), ardura (8), alarma (7), hiesa (5), pairatu (5), probabilitate (5).
- Zientzia-fikzioa: filma (5), fikzio (5), jantzi (5), zientzia (5).

Lehenengo klase hau pisu gehien duen klasea da. Klasearen gai nagusi gisa mundu-mailan ebola zabaltzeari lotutako beldurra adierazten du. Nahiz eta irudikapen kolektiboan ebola oraindik Afrikarekin lotu, Mendebaldera heldu ahal izateak ikerketako partaideak arduratzen ditu. Klase honen barruan berebiziko garrantzia du ebola gehien arduratzen gaituena haren zabalkundea edo guregana heltzeko posibilitatea izateak, eta ez Afrikan dauden hildakoek. Halere, zenbait pertsonak oraindik izurrite hau zientzia-fikziozko filma balitz bezala ikusten dute, klase honetako honako adibide hauek erakusten duten bezala:

- Gaixotasun honi ez zaio garrantzirik eman herri garatuetan zenbait kasu gertatu arte, Espainian, Europan, AEBn, eta horrek beldurra ematen du, mundu-mailako izateak izutu egiten nau ($X^2=32$).
- Eta hona, Mendebaldera, Europara helduko balitz zer? zeren ez dela helduko esaten dute baina, zergatik ez? Niri beldurra ematen dit eta ez naiz bakarra ($X^2=24$).
- Berdin zaigu Afrikan pila bat jende hiltzea, nahi dugun bakarria Europara edo AEBra ez heldzea da, zuritxoak gauden lekura eta badaezpada suero eta bakunak zuriontzako gordetzen ditugu ($X^2=18$).
- Afrikan gertatzen denak guri bost! Baina Espainian, Europan edo AEBn gertatzen bada, kikildu egiten gara eta beldurrez zoratu egiten gara ($X^2=17$).
- Zientzia-fikziozko pelikula bat dirudi, kutsatzen diren guztiak hil egiten dira eta hona heltzen bada, ba ez dakit, apokalipsia edo izango da guztiok astronauta jantziekin ibili beharko gara ($X^2=17$).
- Mendebaldeari dagokionez pelikula baten antza dauka, maskara eta astronauta-jantzi horiekin zientzia-fikzioa edo apokalipsia dirudi, ez dut uste hemen hainbesteko izango denik, han, Afrikan, ordea, bai ($X^2=17$).

2. klasea: «Farmazeutiken interesak eta beldurraren zabalkundearekin erlazioa»

- Farmazeutikak: dirua (25), farmazeutikak (24), txertoa (16), osasuna (8), botika (7), industria (7), artatu (5), aurreikusitako (5), laborategia (5), ikertu (5), sendatzea (5), printzipioa (5).
- Interes ekonomikoak: interes (22), ekonomiko (7), botere (5), garesti (5), irabaztea (5), mesedetarako (5), negozioak (5).
- Afrikako ebolaren hedapena: epidemia (17), pobre (13), estatu (9), zona (9), leku (7), afrikarra (5), berria (5), egokia (5), higiena (5), kontrola (5).
- Emoziok: beldurra (47), arriskua (11), amorru (5), garrantzitsua (5), sentitzea (5).

Klase hau ebola-izurritean farmazeutikoek izandako interes ekonomikoekin lotua dago. Jendearen sufrimendu eta beldurraz baliatuz dirua irabaztea leporatzen zaie. Gainera farmazeutikoen helburu nagusia Mendebaldean haien produktuak saltzea dela eta ez Afrikan bizitzak salbatzea behin eta berriz errepikatzen da klase honetako ondorengo adibideetan ikus dezakegun bezala:

- Orain farmazeutikak txerto baten bila dabilta, nik uste dut aurkitu dutela jada baina oraindik ez zaie komeni esatea, diru gehiago irabazteko dirua duten herrialdeei salduaz ($X^2=39$).
- Mota guztietako konspirazio teoriak daude: arreta desbideratzeko berria dela, industria farmazeutikoaren truko bat izua zabalduz dirua irabazteko eta egia esan beldurra ematen dit izuaren mamu horrek jendeak arriskua hautematera bultzatuko duen ($X^2=34$).
- Berekoien hauen erruagatik mundu guztia kutsatuko da. Industria farmazeutikoak interes ekonomikoak ditu gaixotasun honekiko eta diru asko irabaztea espero du, horregatik ez du egin ahalko lukeen guztia, nahi duten gauza bakarra aberastea baita ($X^2=22$).

3. klasea: «Ebolaren kutsatzea eta arriskua»

- Kutsatzeko erak: gaixotasuna (142), kutsatze (102), birus (54), pertsona (33), bidez (29), fluido (25), transmititzea (18), kontaktu (17), txertoa (16), odol (14), listu (11), erraz (9), gorputz (8), izerdi (8), saguzar (8), birikoa (7), gorputz (6), infektatu (6), hedatzea (5), pazientea (5), zabalkuntza (5), zuzeneko (5).
- Arriskua: arriskua (20), altua (16), gainditzen du (7), aukera (5) maila (5), probabilitate (5).
- Heriotza: sendaketa (18), hiltzea (9), gorpua (8).
- Jatorria: Ginea (5), jatorria (7).

Kutsatzeko arriskuak ardura handia sortzen du ebolaren gizarte-irudikapenetan. Klase honetan gaixotasun hau nola kutsatzen den eta nolako heriotza-arriskua duen aipatzen da. Hemen zenbait adibide:

- Oso kutsakorra den gaixotasuna da eta gorputzeko fluidoan bidez transmititzen da. Saguzarretatik dator, hauek pertsoneri kutsatu zieten lehenengo aldiz orain dela hamarkada batzuk Afrikan ($X^2=23$).
- Listu, izerdi eta gorputzak botatzen dituen likidoen bidez kutsatzen den birusa da. Oso gaixotasun arriskutsua da ($X^2=21$).
- Fluido bidezko kutsatze-tasa oso altua duen birusa da, bere jatorria saguzarrek gizakiei kutsatu ziotenekoa da ($X^2=17$).

4. klasea: «Ebola eta heriotza Afrikan»

- Afrikako egoera: Afrika (157), kokatu (69), pobrezia (16), eragiten du (6), azpigaratua (5), hirugarren (5).
- Hilkortasuna: heriotza (43), hilgarri (38), larri (23), hil (5).

Klase honetan pertsonak ebola eta Afrikaren artean egiten duten lotura ikus dezakegu. Ebola Afrika txiro, azpigaratu eta Hirugarren Mundukoan kokatzen dute eta ezaugarri horiek izurritearen heriotza-tasa altuarekin lotzen dituzte. Hemen, klase honetako zenbait adibide:

- Orain dela urte askotatik Afrikan jende asko hiltzen duen gaixotasuna. Afrika=pobrezia=heriotza ($X^2=21$).
- Herrialde azpigaratuetan hilkorra den gaixotasuna da gaur egun. Heriotza eta pobrezia ($X^2=17$).
- Birus batek sortutako gaixotasun infekziosoa da eta oso kutsakorra da. Hirugarren Munduko herrialdeetan kokatzen da batik bat. Gaixotasun hau herrialde azpigaratu eta pobreekin lotzen dut ($X^2=15$).

5. klasea: «Teresa Romeroren kasua eta gobernuaren eta komunikabideen kudeaketaren balorazioa»

- Teresa Romeroren kasua: ebola (54), erizaina (12), misiolaria (9), Romero (7), Pajares (5), sendatzea (5), txakurra (5), teresa (5).
- Espainiako Gobernuak: Espainia (18), gobernu (17), Madril (17), espainiar (14), baliabideak (9), osasun (6), europarra (5), kudeaketa (5).
- Erruduntasuna: errua (32), gabezia(12), krisi (7), txar (7).
- Hedapena: kutsatzea (73), arrisku (11), pandemia (9), infektatzea (6), hedatzea (5).
- Komunikabideak: komunikabide (25), komunikazio (23), beldur (5), berria (5), gai (5), informazio (5), irudi (5), saiatzeta (5).

Klase hau Europan egondako lehenengo ebola kutsatzeari buruzkoa da, Teresa Romero espainiar erizainarena hain zuzen ere. Gainera, alde batetik Espainiako Gobernuari krisiaren kudeaketa txarraren eraginez kutsatzea eta izurritearen zabalkundea baimentzea leporatzen zioten. Bestalde, komunikabideen papera eta krisi honi buruz eginiko estalduraren egokitasuna ere zalantzan jartzen dira klase honetako adibideetan ikus dezakegun bezala:

- Komunikabideak hau guztia apokalipsia izango balitz bezala saltzen ari dira. Ebola Afrikarekin lotzen dut, baina baita gobernuak egindako lardaskeriarekin eta komunikabideen informazio txarrarekin ere ($X^2=47$).
- Jaungoikoari esker Teresa osatu egin da, baina haren Excalibur txakurra hil zuten. Txakurra arrazoi gabe hil zuten Madrilgo gobernuaren erruz ($X^2=45$).

- Espainiar politikariak lotsagabe batzuk direla uste dut, baita ebola Espainiara heltzearen errudun ere osasun-arloan egindako murrizketa guztiengatik, haiek aberasten ziren bitartean ($X^2=42$).

6. klasea: «Ebolaren etiologia»

- Jatorria: ebola (54), kasu (23), lehenengo (22), ibai (13), izena (12), gizaki (10) zonalde (9), saguzar (8), agertu (7), Kongo (7), agerraldi (5), animalia (5), dator (5), entzunda (5), espezie (5), tximino (5), umea (5).
- Sintomak: hilgarri (38), eragin (18), sukar (17), sintoma (14), min (11), hemorragia (8), kopeta (7), burua (5), muskularra (5), sueroa (5), tasa (5), botaka (5).
- Transmisioa: birusa (54), gehiago (13), airea (5), handia (5), transmisioa (5).

Klase honetan ebolaren etiologiaren deskripzio nahiko zientifikoa egiten da, batez ere haren jatorria, haren sintomak eta kutsatzeko era aipatzen dira, ondorengo adibideetan ikus dezakegun bezala:

- Bi fase ditu. Lehenengo fasean sukar altua edukitzen da, buruko mina, etab. Eta bigarren fasean barne-hemorragiak errai eta antzeko guneetan uste dut. OMEk mundu-mailako alerta bat aktibatu du ebolagatik ($X^2=49$).
- Saguzar mota batean du bere jatorria. Izena Afrikan dagoen Ebola izeneko ibaitik dator. Sukar hemorragikoa da eta haren hilkortasun-tasa nahiko altua da ($X^2=43$).
- Afrika mendebaldeko zona zabaletan hedatua dago eta gizaki eta primateei (gorila, txinpantze eta tximuak) eragiten die. Kutsatzea gertatu den unetik egun batzuk pasa daitezke lehenengo sintomak agertu arte, buruko mina, min muskularra, botaka egitea, beheranzkoa eta ezohikoa den odol-jarioa sortzen ditu ($X^2=30$).

4.1.2. Erlazioa aldagai askeekin

Alceste softwareak klase lexikalen eta aldagai askeen arteko erlazioa neurtzen du independentzia-testen bidez. Klase batekoak diren hitz multzo esanguratsuki gehiago baldin badaude aldagai askeko maila batekin lotuta beste maila konbinatuekin baino, klasea lehenengo maila horri lotua dagoela esateko bermea egongo da. Programak analisi bera burutzen du beste aldagai aske maila eta klase guztiekin ere. Gure kasuan parte-hartzaileen erantzunak emandako dataren arabera sailkatu ziren (2014ko abuztua edo azaroa).

Emaitzek adierazi zuten laugarren klasea «Ebola Afrikan» batez ere abuztuan aipatu zutela parte-hartzaileek, $X^2(1)= 29.9$, $p < 0,001$. Bestalde, bosgarren klasea «Teresa Romeroren kasua eta gobernuaren eta komunikabideen kudeaketa txarra» azaroan agertu zen batik bat, $X^2(1)= 29.12$, $p < 0,001$, urriaren 6an kutsatzearen berri jakin eta gero.

4.2. Nolako arrisku-hautematea sortzen du ebolak?

Parte-hartzaileek ebola arrisku garrantzitsutzat hautematen zuten; izan ere, 1etik 5erako eskala batean 4.22an ($DT=0.93$) kokatu zuten haren arrisku-maila orokorra. Halere, norberarentzako edo *self*-aren arrisku-maila esanguratsuki baxuagoa, $t(292) = 29.88$ $p < .001$, izan zen, 2.02ko ($DT=1.20$) batez bestekoa izan zuelarik.

Gainera, korrelazio esanguratsua aurkitu zen bi aldagaien artean, zenbat eta altuagoa izan arrisku-hautematea orokorra, orduan eta altuagoa izan zen norberarentzako arrisku-hautematea ere, $r=.31$, $p<.01$.

Datuak jasotako hilabetearen arabera konparatuz gero, arrisku-hautemate orokorraren kasuan desberdintasun esanguratsuak daudela beha dezakegu, $t(291) = 5.17$ $p < .001$, abuztuan ($M=4.49$; $DT=0.80$) arrisku-hautemate orokorra handiagoa izan zelarik azaroan ($M=3.95$; $DT=0.97$) baino. Bestalde, ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu norberarentzako arrisku-hautematean abuztuaren eta azaroaren artean, $t(292) = 1.42$ $p=e.e.$

4.3. Zein sentimendu edo emozio sortzen ditu ebolak biztanlerian?

Emozio-talde ezberdinak aztertuaz ondorioztatu zen ebolak batez ere interesa sortzen zuela ($M=3.18$; $DT=1.03$), jarraian beldurra ($M=2.70$; $DT=1.07$), gero haserrea ($M=2.47$; $DT=1.17$), eta azkenik ekintza-emozioak ($M=1.71$; $DT=0.83$).

Hainbat korrelazio-analisi egin ziren arrisku-hautematearen eta emozio-talde ezberdinen artean eta lehenik eta behin behatu zen arrisku-hautemate orokorra zenbat eta handiagoa izan, orduan eta altuagoa zela beldurra, $r=.32$, $p<.001$. Bigarrenik, emaitzek adierazi zuten norberarekiko arrisku-hautematea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta altuagoak zirela ebolak sortutako beldurra, $r=.41$, $p<.001$, eta ekintza-emozioak, $r=.15$, $p<.01$, baina baxuagoak haserre-emozioak, $r=-.15$, $p<.001$. Interes-emozioek ez zuten korrelaziorik izan arrisku-hautematearekin.

Azkenik, European lehenengo kutsatzea gertatu baino arinagoko eta ondorengo emozioak konparatuta behatu zen ebolak esanguratsuki beldur gehiago, $t(292) = 2.20$; $p < .02$, sortzen zuela abuztuan ($M=2.62$; $DT=1.27$) azaroan baino ($M=2.32$; $DT=1.05$). Bestalde, interesa, $t(292) = -2.39$; $p < .02$ ($M_{abuztua}=3.04$; $DT_{abuztua}=1.00$; $M_{azaroa}=3.33$; $DT_{azaroa}=1.06$), eta ekintzarako gogoia, $t(292) = -2.33$; $p < .02$ ($M_{abuztua}=1.59$; $DT_{abuztua}=0.64$; $M_{azaroa}=1.82$; $DT_{azaroa}=0.97$), azaroan altuagoak izan ziren abuztuan baino. Ez zen desberdintasunik aurkitu haserre-mailan, $t(292) = -.48$ $p=e.e.$

5. Ondorioak

Lan honetatik eratorritako emaitzek gako garrantzitsuak argitu dizkigute, osasun-izurriteak eta bereziki ebola ulertzeko, hautemateko eta sentitzeko dugun eran, eta guk planteatzen genituen hipotesi nagusiak bete dira.

Lehenik eta behin, ebolaren irudikapen partekatuei dagokienez, aurreko ikerketetan bezala (Joffe, 2002) oraindik orokorki ebola Afrikan kokatzen da. Halere,

(4. klasea) haren zabalkundeari (1. klasea) edo kutsatze-arriskuei (3. klasea) zaien beldurak berebiziko indarra hartzen du, klaseen pisuaren ia erdia (% 42,35) dutelarik bi klase horiek. Hau da, arrisku-gizartearen (Beck, 1992) teoriak auresan bezala, mundu-mailako muge iragazkortasuna geroz eta handiagoa dela hautematen du jendeak. Horregatik, osasun-izurriteak arrisku berri gisa mundu-mailako arazotzat jotzen dira. Teresa Romeroren kasuak, zabaltzeko posibilitate horren adierazgarri izanik, garrantzi berezia hartzen du parte-hartzaileek izurritea kokatzeko unean. Izan ere, abuztuan galdetutakoan ebola batez ere Afrikarekin lotzen zuten bitartean, azaroan ebola eta kasu konkretu horren arteko lotura aipatzen ziren batik bat. Gainera, kutsatzea norbere herrialdera hurbiltzearekin bat gobernuari leporatutako erruduntasun-maila eta haiekiko haserrea ere nabarmenki igo ziren. Jarrera hori gizarte-irudikapenen teoriatik azalduta, gaixotasuna besteen taldearekin, hau da Afrikarekin, bakarrik lotu ezin denean eta norbera bezalako jendea ere eragiten hasten denean gertatzen den erruduntze-prozesu ohikoa da (Washer, 2006). Azkenik, izurrite honetako bilau nagusiak, farmazeutikoak (2. klasea), komunikabideak eta gobernuak (5. klasea) bera izan direla ikus dezakegu. Farmazeutikoei kosta ahala kosta aberastea, komunikabideei informazioaren kudeaketa txarra eta gobernuari krisiaren aurrean kudeaketarako gaitasun eza leporatuaz. Bilau horiek kudeatzeko orduan kontuan izan behar dugu komunikabideek erabilitako diskurtsoek eragin zuzena dutela gizarte-irudikapenen sorkuntza-prozesuan (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2015). Beraz, komunikabideetan bilauek duten papera aztertzeaz gain, kontuan hartu behar da komunikabideak beraiek gizarte-irudikapenen sortzaile eta protagonista direla aldi berean, horrenbestez garrantzi nabarmena harturik.

Bigarrenik, ebolak sortutako arrisku-hautemateari dagokionez, pertsonak hautemandako arrisku-hautemate orokorra oso altua izan da, baina, aldiz, norberarentzat hautemandako arriskua askoz txikiagoa. Hor, gaixotasuna «besteekin» lotzearen beste adibide garbi bat dugu. Bai, arrisku-gizartean bizi gara, eta arriskuak geroz eta zabalkunde azkarragoa du, baina self-a babestuta ikusten dugu, arazoa besteei lotuz batik bat. Aipagarria da, orobat, abuztuan arrisku-pertzepzio orokorra azaroan baino handiagoa izatea, nahiz eta azaroan Mendebaldean jada kutsatzeak izan ziren. Hori, baliteke osasun-izurrite mota hauek gizartean behin eta berriro agertzeak sortutako nekearekin (Joffe, 2011) lotuta egotea. Hau da, sarritan ezerezean geratu den alarma iraunkor horrek, zeinak bereziki komunikabideen diskurtsoaren bidea arrisku-pertzepzioa nabarmenki pizten duen (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2015), Mendebaldeko gizartean osasun-izurriteekiko hausnarketan abaildura sortu izana.

Azkenik, ebola sentitzeko erari dagokionez, batez ere interesa sortzea deigarria da, beldurra eta haserrea erdi-mailako balioak izan zituztelarik. Gainera, beldurra abuztuan altuagoa izan zen azaroan baino. Osasun-izurrite hauek izua berebizikoa ez izatea hainbat ikuspuntutatik azaldu izan da; hasteko, jada aipatu dugun izurriteekiko nekeagatik izan daiteke, ondorioz izurriteekiko herostura, ardura eta beldurra baxuak izanik. Halere, beste korrante batzuen ustetan (Sherlaw eta Raude, 2013), izurriteekiko lasaitasun hori, izurriteen aurreikuspenen eta ondorio errealean artean dagoen langa handiak sortu du. Aurreikuspen horietan sarritan egon ohi den diskurtso alarmista eta izu metaforadunak ezerezean geratzeak gure gizarte-

igurikapenetan ainguraturik geratu dira eta eragina dute egun bizi ditugun osasun-krisietan ere. Horrela, horrek azal dezake baita ere krisiaren lehenengo uneetan (abuztuan) arrisku-hautematea eta beldurra handiagoa izatea, baina hilak aurrera joan ahala herstura-maila horiek gutxitzea aurreko izurriteetan jarraituriko jarrera bera errepikatuta.

Gainera, deigarria da, orobat, arrisku-hautematearen eta emozioen arteko lotura. Argi geratu da arrisku-hautematea zenbat eta handiagoa izan, altuagoa dela pertsonen sentitzen duten beldurra, bereziki arrisku-hautemate hori norberarekiko denean. Izan ere, norberarekiko arrisku-hautemateak nolabait ekintzara ere bultzatzen gaitzake, izurritea ekiditeko edo haren kontra borrokatzeko aholkuei jarraituz, baina era berean alarmismora ere bultzatzen gaitzake justu kontrako efektua izanik (Rubin, 2010). Halaber, haserrearek ere, adibidez osasun-izurriteetako bilauekiko sentitutakoak, arrisku-hautematea gutxitu dezake. Joera hori arazoa izan daiteke etorkizuneko osasun-izurriteei aurre egiteko, izurriteekiko nekea haserre bihurtzen bada, arriskuaren hautematean soslaia sortu ahalko baitu.

Beraz, laburbilduz, Mendebaldean ebola oraindik Afrikarekin lotzen dugu, nahiz eta arrisku-gizartearen barnean kutsatzeko edota zabaltzeko arriskuak bereziki arduratzen gaituen. Halere, arrisku-maila horretan geure burua esanguratsuki babestuta ikusten dugu «besteekin» konparatuta. Gainera, ebolarekiko sentitzen dugu beldur pertsonal maila ere ez da berebizikoa: gaixotasuna besteekin lotzetik haratago, izurriteekiko gizartean sortutako nekeak edo izurrite-hasieretan egoten diren gehiegizko aurreikuspen larriak bete ez izanak azal dezake hori. Horrek guztiak hein batean gizartean izurriteekiko eta bereziki bertako bilau kontsideratzen diren farmazeutiko, komunikabide eta gobernuekiko haserrearen sortzea dakar, eta etorkizunean haserre horrek ondorio larriak izan ditzake izurriteak hautemateko eran. Hau da, izurriteei aurre egiteko dugun era nolabait aurreko izurriteetan bizi izandako esperientziak bideratzen badu (Sherlaw eta Raude, 2013), premiazkoa da ebola-izurrite hau nola ulertu, hauteman eta sentitu den sakonki jakitea.

6. Erreferentziak

- Aragonés, J.I.; Talayero, F. eta Olivos, P. (2010): «Percepción del riesgo de la gripe A (H1N1) desde el "paradigma psicométrico"», *Revista de Psicología Social: International Journal of Social Psychology*, **25**(3), 271-282, DOI:10.1174/021347410792675598
- Bauer, M. eta Gaskell, G. (1999): «Towards a paradigm for research on social representations», *Journal for the Theory of Social Behaviour*, **29**, 163-186.
- Beck, U. (1992): *The risk society: towards a new modernity*, Sage, Londres.
- DeSteno, D.; Petty, R.E.; Wegener, D.T. eta Rucker, D.D. (2000): «Beyond valence in the perception of likelihood: The role of emotion specificity», *Journal of Personality and Social Psychology*, **78**, 397-416, DOI:10.1037/0022-3514.78.3.397
- Higgins, E.T. (1998): «Promotion and prevention: Regulatory focus as a motivational principle», in M. Zanna (ed.), *Advances in Experimental Social Psychology*, Academic Press, New York, 1-46.
- Höjjer, B. (2011): «Social Representations Theory: A new theory for media research», *Nordicom Review*, **32**(2), 3-16.

- Idoiaga, N. eta Gil De Montes, L. (2014, azaroa): «Comunicación y representación del riesgo en crisis sanitarias. Efecto del framing y de la identidad grupal», I Congreso de la SCEPS-en aurkeztutako komunikazioa, Sevilla, España.
- Joffe, H. (1999): *Risk and the other*, Cambridge University Press, Cambridge.
- , (2011): «Public apprehension of emerging infectious diseases: are changes afoot?», *Public Understanding of Science*, **20(4)**, 446-460, DOI: 10.1177/0963662510391604
- Joffe H. eta Bettega, N. (2003): «Social representation of AIDS among Zambian adolescents», *Journal of Health Psychology*, **8**, 616-631. DOI:10.1177/13591053030085011
- Joffe, H. eta Haarhoff, G. (2002): «Representations of far-flung illnesses: The case of Ebola in Britain», *Social Science and Medicine*, **54**, 955-969, DOI:10.1016/S0277-9536%2801%2900068-5
- Joffe, H. eta Lee, N.Y.L. (2004): «Social representation of a food risk: The Hong Kong avian bird flu epidemic», *Journal of Health Psychology*, **9**, 517-533. DOI:10.1177/1359105304044036
- Joffe, H. eta Staerke, C. (2007): «The centrality of the self-control ethos in Western aspersions regarding outgroups: A social representational analysis of common stereotype content», *Culture and Psychology*, **13**, 395-418, DOI:10.1177/1354067X07082750
- Johnson, E.J. eta Tversky, A. (1983): «Affect, generalization, and the perception of risk», *Journal of Personality and Social Psychology*, **45**, 20-31.
- Idoiaga, N.; Gil De Montes, L. eta Valencia, J.F. (2015): «Osasun-krisiei buruzko gizarteirudikapenak: A gripearen kasua Mexiko eta Espainiako hedabideetan», *Uztaro*, **94**, 69-89.
- Klein, O. eta Licata, L. (2003): «When group representations serve social change: The speeches of Patrice Lumumba during the Congolese decolonization», *British Journal of social Psychology*, **42**, 571-593.
- Lahlou, S. (1996): «A method to extract social representations from linguistic corpora», *Japanese Journal of Experimental Social Psychology*, **35(3)**, 278-291.
- Millstein, S.G. (2003): «Risk perception: Construct development, links to theory, correlates, and manifestations», in D. Romer (ed.), *Adolescents as decision makers: Affect, risk perception, and behavior*, Sage Publications, Thousand Oaks, CA, 35-43.
- Moscovici, S. (1984): «The phenomenon of social representations», in R.M. Farr eta S. Moscovici (ed.), *Social representations*, Cambridge University Press, Cambridge, 3-71.
- O'Neill, S. eta Hulme, M. (2009): «An iconic approach for representing climate change», *Global Environmental Change*, **19**, 402-410.
- Pereira de Sa, C. (1996): *Núcleo central das representações sociais* [Central core of social representations], Vozes, Petrópolis.
- Reinert, M. (1983): «Une méthode de classification descendante hiérarchique: application à l'analyse lexicale par contexte», *Les cahiers de l'analyse des données*, **8(2)**, 187-198.
- , (1990): «Alceste, une méthode d'analyse des données textuelles. Application au texte «Aurélia de Gérard de Nerval», *Bulletin de Méthodologie Sociologique*, **26(1)**, 25-54, DOI:10.1177/075910639002600103
- , (1996): *Alceste* (Version 3.0), Images, Tolosa.
- Rubin, G.; Potts, H. eta Michie, S. (2010): «The impact of communications about swine flu (influenza A H1N1v) on public responses to the outbreak: results from 36 national telephone surveys in the UK», *Health Technology Assessment*, **14**, 183-266.
- Sherlaw, W. eta Raude, J.(2013): «Why the French did not choose to panic: a dynamic analysis of the public response to the influenza pandemic», *Sociology of Health & Illness*, **35(2)**, 332-344, DOI: 10.1111/j.1467-9566.2012.01525.x

- Slovic, P. (2010): *The feeling of risk*, Earthscan, Londres.
- Smith, N. eta Joffe, H. (2012): «How the public engages with global warming: A social representations approach», *Public Understanding of Science*, **0(0)**, 1-17, DOI:10.1177/0963662512440913
- Wagner, W. (1997): «Word association in questionnaires. A practical guide to design and analysis», *LSE Methodology Institute-Papers in Social Research Methods/qualitative Series*, **3**.
- Wagner, W.; Kronberger, N. eta Seifert, F. (2002) «Collective Symbolic Coping with New Technology: Knowledge, Images and Public Discourse», *British Journal of Social Psychology*, **41**, 323-343.
- Wagner-Egger, P.; Bangerter, A.; Gilles, I.; Green, E. G. T.; Rigaud, D.; Krings, F. Starkle, C. eta Clémence, A. (2011): «Lay perceptions of collectives at the outbreak of the H1N1 epidemic: Heroes, villains and victims», *Public Understanding of Science*, **20**, 461-476, DOI:10.1177/0963662510393605
- Waters, E.A. (2008): «Feeling good, feeling bad, and feeling at-risk: A review of incidental affect's influence on likelihood estimates of health hazards and life events», *Journal of Risk Research*, **11**(5), 569-595.
- Washer, P. (2004): «Representations of SARS in the British newspapers», *Social Science and Medicine*, **59**, 2.561-2.571, DOI:10.1016/j.socscimed.2004.03.038
- , (2010) *Emerging Infectious Diseases and Society*, Palgrave Macmillan, Basingstoke.
- Washer, P. eta Joffe, H. (2006): «The “hospital superbug”. Social representations of MRSA», *Social Science and Medicine*, **63(8)**, 2.141-2.152.
- Watson, D.; Clark, L.A. eta Tellegen, A. (1988): «Development and validation of brief measures of positive and negative affect: The PANAS scales», *Journal of Personality and Social Psychology*, **54**, 1.063-1.070.

